



4.4. DIRULAGUNTZA LERROA: ENPRESETAN EUSKARAREN ERABILERA, EZAGUTZA ETA IKUSGARRITASUNA SUSTATZEKO EGITASMOAK – 2021. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1. Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da enpresei dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, euskararen erabilera, ezagutza eta ikusgarritasuna sustatzeko egitasmoak burutzeagatik. Lehia bidezko konkurrentziaren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu-partida agortu arte) esleituko dira.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko kopurua

Enpresetan euskara ikusgarri egiteko jarduerengatik emango den dirulaguntzaren zenbatekoa 2021eko aurrekontuko partidaren kontura izango da; betiere, partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada. Partida hori ondorengoa da:

1.1030.471.01.335.10 – Dirulaguntzak: lan munduari; 1.500 €.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

2021eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

Oro har, dirulaguntzaren kopuru osoa inoiz ez da izango onuradunak bideratu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen dirulaguntzak edo laguntzak batuta.

Dirulaguntza eskariei, horretarako jarrita dagoen kopurua gainditzen dutenean, hainbanaketa egingo da, eskatzaileek egin duten gastuaren arabera proportzioak mantenduz

3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era

Oro har, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte -Errenterian errotutako edozein enpresa juridiko pribatuk.

3.1. Eskararekin aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskatzaileek Udalak emandako inprimaki normalizatua (Eranskin honetan agertzen dena) aurkeztu beharko dute, ondorengo dokumentuekin batera:

- a) NAN edo IFK
- b) Eskaria egiten duen erakundeak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.
- c) Egitasmoaren memoria eta aurrekontua



d) Eginiko gastua justifikatzen duten fakturak

4.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak egiteko epea 2021eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra izango da, biak barne.

5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Euskara ikusgarri egiteko jarduera bat egiten duen enpresa bakoitzari egitasmoaren kostuaren %25eko dirulaguntza emango zaio 1.500,00 euroko mugarekin.

Dirulaguntza eskariek, horretarako jarrita dagoen kopurua gainditzen dutenean, hainbanaketa egingo da, eskatzaileek egin duten gastuaren arabera proportzioak manteduz.

6.- dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena hartu ondoren egingo da. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatu ondoren egingo da aldi bakar batean, eskaeran adierazitako kontuan egingo den dirusarrera bidez.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRENERIAKO UDALAK 2021 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.